

BIOMASA

Gida labur bat, biomasa zer den eta zure etxeko aprobetxamenduaren onura nola atera ulertzeko.



n a i d e r

ZER DA BIOMASA?

Biomasa energia-iturri berriztagarria da, hondakin organikoen bero-ahalmena aprobetxatzen duena. Gehien erabiltzen diren materialak baso-hondakinak (enborrak, hostoak) eta zerrategien hondakinak (ezpalak) dira, baina beste batzuk ere erabil daitezke, hala nola errautsak, fruitu lehorren oskolak eta oliba-hezurak.

NOLA FUNTZIONATZEN DU?

Energia termikoa sortzeko erabiltzen da, hau da, **berokuntzarako edo ur bero sanitarioa sortzeko**. Ohiko tximinien eta pellet berogailuen kasua da, baina biomasa aprobetxatzeko diseinatutako galdarak instalatzeko aukera ere badago.

Instalazio industrialen kasuan, **elektrizitatea ere lor daiteke**, erretako biomasa lurrun bihurtuz, sorgailu elektriko baten turbinari eragiteko.

ZER DA BIOMASA- GALDARA BAT?

- ▶ **Biomasaren bero-energia urarentzako bero** bihurtzen duten gailuak dira.
- ▶ Funtzionamenduaren oinarria beste edozein galdararen antzekoa da: **erregia erretzen dute** (pelletak, ezpalak, oliba hezurak, etab.) galdaran sartzen den gar horizontal bat sortuz. **Sortutako beroa zirkuitu trukatzaile batera transmititzen da, berokuntza-sistamarako edo etxeko ur berorako ur beroa lortzeko.** Etxebizitzak, saltokiak eta industriak hornitzeko behar den energia guztia eman dezakete.
- ▶ Biomasa erre ondoren geratzen den errautsa **ongarri gisa** erabil daiteke.
- ▶ **Sortzen diren CO₂ emisioek**, ziklo biologiko berean atmosferatik kendutako karbono batetik datozenez, ez dute atmosferako karbono-kontzentrazioaren oreka aldatzen, eta, beraz, **ez dute berotegi-efektua areagotzen.**



BIOMASA GALDARA BAT INSTALA DEZAKET NIRE ETXEBIZITZAN EDO BIZILAGUNEN ERKIDEGOAN?

Bai, baldin eta biomasa-instalazioen eta errekuntza ertaineko biogasen isuriak kontrolatzeko Errege Dekretuak eta Eraikinen Instalazio Termikoen Erregelamenduak 2017an ezarritako isuri-mugak errespetatzen badira.

BIOMASA ERRENTAGARRIA DA?

- ▶ Bai. Biomasaren prezioa **ez dago erregai fosilen moduko nazioarteko merkatuen mende**, eta, beraz, egonkorragoa da denboran zehar. Gainera, merkeagoa da soltean erosten. Bestalde, energia merkeagoa da, **tokiko baliabideetatik sortzen baita**.
- ▶ Kalkulatu da gasolio-galdara bat biomasa-galdara batekin ordeztuz gero, bizilagunen erkidego batean, urtean % 20 aurreztu daitekeela berokuntzan, instalazioaren inbertsioa 8 urtetan amortizatuz.
- ▶ Gainera, eredu **energetiko iraunkorra**, ingurumena errespetatzen duena eta buruaskia lortzen lagunduko duzu, eta, gainera, **landa-enplegua** sustatuko duzu, bildu eta garraiatzeko.
- ▶ Biomasa-galdarak instalatzeko diru-laguntzak daude; gainera, udalek hobariak eskaintzen dituzte horrelako instalazioak dituzten obretarako. Informatu gure bulegoan eta aprobetxatu abantaila horiek.

Beste energia-eredu batzuk ezagutzeak aurreztu egin ditzake fakturak, ingurumenari laguntzen dion bitartean.

*Zalantzarik baduzu edo aholkularitza pertsonalizatua nahi baduzu, jar zaitez harremanetan **Oarsoaldeko Energia Bulegoarekin.***

energia@oarsoaldea.eus | 943.494.129

Zure esanetara gaude!



Lezoko Unibertsitateko Udala



Oarsoaldea
geroa erlean criando futuro



OIARTZUNGO
UDALA



PASAIAKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

n a i d e r